



99ko

kudeaketa

txostena

Lugaritz, 27 - 20018 Donostia
Telf.: 943 317022 - Fax: 943 317280
http://www.geroa.es - e-mail: geroa@geroa.es

1999

1999. urtea bereziki garrantzitsua izan da GEROA, BGAE erakundearentzat.

Negoiazio kolektiboan lortutako akordioen ondorioz, Erakundearen dagoeneko hamabi sektore barne hartzen dira eta honela langile-kopuru handiagoa, oro har Gipuzkoakoa, baliatu ahal izango da erretiro, balioezintasun eta heriotzako osagarriez.

Gipuzkoako garbiketaren sektoreak ere Geroan barne hartzea eskatu du ekitaldi honetan; alabaina, sektore honek 2000. urteko urtariletik aurrera egingo ditu ekarpenak.

Hurrengo taulan 1999ko ekitaldian ekarpenak egin dituzten sektoreak eta ekarpenen ehunekoak jasotzen dira.

SEKTOREAK	1999ko GUZTIZKO EKARPENAREN %
Siderurgia eta metala	%2,5 1999ko otsailera arte - %3 1999ko martxotik
Zeramika	%1,5 1999ko apirilera arte - %2 1999ko maiatzetik
Zuraren industria	%1 1999ko apirilera arte - %1,5 1999ko maiatzetik
Iragan-arloa	%2 1999ko urtariletik
Okindegia	%1,2 1999ko urtariletik
Beira	%2 1999ko urtariletik
Eraikuntza	%0,5 1999ko ekainetik
Paper eta kartoia	%0,7 1999ko uztailetik
Altzariak eta osagarriak	%0,5 1999ko irailetik
Ehun-arloko merkataritza	%0,8 1999ko irailetik
Larru-arloko merkataritza	%0,8 1999ko urritik
Metal-arloko merkataritza	%1 1999ko urritik

Abenduaren 31n GEROA, BGAE erakundeak aldizkako ekarpenak egin zituzten 75.000 langile baino gehiago zituen, hau da, %43,20ko gehikuntza aurreko urtean ekarpenak egin zituzten langileen kopuruari dagokionez. Hala eta guztiz ere, zenbatekoa handiagoa da aldizkako ekarpenik egin gabe saldoa duten langileen kopurua aintzat hartzen badugu, 1999ko ekitaldian 91.500 langile baitira.

Ekitaldia amaitzerakoan jarduera-sektore desberdinetako 6.000 enpresa baino gehiagok egiten dituzte beren langileen aldeko ekarpenak. Gehikuntza %80,94koa da aurreko urtekoarekiko eta gehikuntza honetarako bi arrazoi dago; batetik, ekitaldi honetan barne hartu diren beste sektore batzuk eta, bestetik, aurreko urteetan ekarpenak egiten zituzten sektoreetan beste enpresa batzuk gehitzea.

Sektore, enpresa eta langileen gehikuntza honek eraginda gehikuntza handia izan dute ekarpenek. 1998ko ekitaldian 3.588,89 milioi pezetako kuotak izan ziren eta 1999ko ekitaldian 4.833,11 milioi pezetako kuotak izan dira, hau da, % 34,67ko gehikuntza. GEROA, BGAE erakundearen ondarea, ekitaldi honen amaieran 13.557 milioi pezetakoa da eta ekarpenen proportzioan banatzen da bere langileen artean.

Ekitaldiko errentagarritasuna %7,09koa izan da.

EGOERA-BALANTZEA

1999ko abenduaren 31n, mila pezetatan.


AKTIBOIA		PASIBOIA	
Ibilgetua	194.084	Fondo propioak	14.284.303
Inbertsioak	14.385.433	1999ko ekitaldiko irabaziak	726.632
Hainbat zordun	111.321	Hainbat hartzekodun	44.339
Diruzaintza	364.436		
AKTIBOIA GUZTIRA	15.055.274	PASIBOIA GUZTIRA	15.055.274

GALDU-IRABAZIEN KONTUA


1999ko abenduaren 31n, mila pezetatan.

GASTUAK		SARRERAK	
Prestazioak, berrasegurua	161.555	Ekitaldiko kuotak	4.833.112
Administrazio-gastuak	118.388	Inbertsioen sarrera	950.128
Inbertsio-gastuak	76.408		
Hainbat eskubide bateratu	4.700.257		
Ekitaldiko mozkina	726.632		
ZORRAK GUZTIRA	5.783.240	HARTZEKOAK GUZTIRA	5.783.240


MOZKINEN BILAKAERA



99ko LIKID.-BALIOAREN BILAKAERA



ONDAREAREN BILAKAERA



INBERTSIO-ZORROAREN BANAKETA (%)

AKTIBO-MOTA	ZORROAREN GUZTIZKOAREN GAINEKO %
Errenta-finkoa	% 73,84
Epe laburreko aktiboak	% 7,40
Errenta aldakorra	% 13,92
Zuzeneko inbertsioa	% 2,36
Likidezia	% 2,48

GEROA, BGAE erakundeak lehen aldiz egin ditu zuzeneko inbertsioak eraikuntzan eta Hirugarren Adineko Egoitzen eraikuntza eta kudeaketan eta kapitulu hau gehitu egingo da hurrengo ekitaldian.

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

1999an 134 milioi pezetako zenbatekoa duten prestazioak egin zaizkie 784 onuraduni. Prestazio hauetatik 12 prestazio langilearen erabateko balioezintasuna edo heriotza eragin duten lan-istripuen ondoriozkoak izan dira. Kasu hauetan ordaindutako prestazioa 1.000.000 pezetakoa izan da, eskubide bateratuez gain (ekarpenen eta beren errentagarritasunaren batura).

Irailaren amaieran GEROA txartela abiarazi zen eta txartel honen bidez langileek aldi-aldi eskatu ahal izango dituzte beren saldoa eta beren ekarpenak zuzenak direla egiaztatu ahal izango dute. Era berean, txartel honen bitartez Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko beharrezko zerga-informazioa lortu ahal izango dute. Hurrengo ekitaldian bigarren bidalketa egingo dugu Gipuzkoan bizi eta 1999ko ekainez gerotik ondoren erakundearen sartu diren langile guztientzat.

1999ko PRESTAZIOEN ONURADUNAK

